

## MUK EUR-ACE nazioarteko egiaztagiria lortu du ingeniaritza mekanikoan

2014/09/05

Ingeniaritza Mekanikoko graduak egiaztagiri hau lortu du. MU eta Madrileko Carlos III.a Unibertsitatea dira ziurtugari hau duten estatuko unibertsitate bakarrak. Ingeniaritza Mekanikoko gradu hau Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Arrasateko eta Goierriko campusetan ematen da, 4 ikasmaila dira eta makina eta ekipoen diseinu eta fabrikazioa lantzen du, baita, hainbat prozesu eta industriaguneen diseinua, garapena, instalazioa, ekoizpena eta mantenua.

Zigilu honetaz datorren ikasturtean Ingeniaritza Mekanikoa egingo duten ikasleez gain, 2011n gradu hau Mondragon Unibertsitatean ezarri zenetik titulua lortu duten 300 ingeniariak ere baliatuko dira.



EUR-ACE® egiaztagiria